

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

UndergroundBnb-ren komunikazio eta banaketa kanalak bezeroengana modu errazean iristeko pentsatuta daude. Komunikazio nagusia kanal digitalen bidez egingo da: webgunea, mugikorretarako aplikazioa, sare sozialak eta online iragarkiak, adibidez Google Ads edo sare sozialetako publizitatea. Horrez gain, tokian tokiko ikusgarritasuna lortzeko, kartelak, QR kodeak eta garajeetako seinaleak erabiliko dira.

Bezeroekin harremana mantentzeko, email bidezko mezuak, push jakinarazpenak eta erabiltzaile motaren arabera edukia bidaliko dira. Horrela, informazioa interesgarriagoa izango da eta bezeroek zerbitzua gehiago erabiliko dute. Gainera, komunikazioa jarraitua eta argia izango da, markarekiko konfiantza handitzeko.

Zerbitzua modu digitalean eskaintzen da. Erabiltzaileek aplikazioan sartzen dira, aparkatzeko plaza aukeratzen dute eta ordainketa online egiten dute. Behar diren sistema edo gailu fisikoak (adibidez sarbide-sistemak) UndergroundBnb-k edo baimendutako enpresek instalatuko dituzte, bitartekaririk gabe, dena ondo funtzionatzeko.

Gainera, komunitatearekin harremana izatea garrantzitsua da guretzat. Horregatik, tokiko elkarteekin eta udalekin informazio-jarduerak egingo dira, proiektua ezagutzera emateko. Bezeroentzako arreta telefono bidez, online chat bidez eta email bidez eskainiko da, arazoak azkar konpontzeko.

Azkenik, erabiltzaileen iritziak jasoko dira inkesta laburren bidez, zerbitzua etengabe hobetzeko. Horrek erabiltzaileen esperientzia hobetzen lagunduko du eta UndergroundBnb-ren zerbitzua gero eta hobea izatea ahalbidetuko du.

